



NORENA DE NATURA?

Baliabide naturalen ustiaketa kontrolatzen duten erauzketa-industrien eta transnazionalen jardunbidea salatzen ari da gizarte zibila. Horrez gain, badago gairi gerturatzen garenean, zalantza eragiten digun beste elementu bat, eta baliabide naturalez ari garenean azpian dagon beste galdera hauxe da: ¹ Norena da natura?"

Baliabide naturalak erauztea, eskuratzea eta kontrolatzea geopolitika berriaren arazo nagusietako bat bilakatu da, eta gatazka nazional eta nazioarteko asko eragiten edo elikatzen ditu. Nazio Batuen arabera, baliabide naturalekin lotutako 18 gatazka bortitz egon dira 1990etik, eta, azken 60 urteko gatazken kasuan, hamarretik lau baliabide horiekin erlazionatuta daude².

Badago gai nagusi bat guzti honetan, alegia, baliabide horiek **nork eskuratzen dituen eta nork kontrolatzen dituen haietatik lortzen diren etekinak**, eta nork jasaten dituzten horren ondorioak. Enpresa multinazionalen meatzaritzan jarduteko moduaren aurkako mugimendu gero eta handiagoa dago planetan zehar. Gure posizioa baliabide horien **governantzan** oinarritzen da, komunitate horien gobernantzan. Alegia, gure ustez, komunitateek berek eta lurraldeetan bizi diren pertsonak erabaki behar dute zer garapen nahi duten beren lurraldean.

Hala, **ALBOAN** ek hainbat prozesutan laguntzen du, leku bakoitzean bertako komunitateen estrategien arabera. Esaterako La Puya-Guatemalan, meatzaritzaren aurka egiten duten Ixcamgo emakumezkoekin³. Kolonbian, urrearri eta ikatzari buruz hitz egiten duten gizarte zentroekin batera, edota KEDn, meatzaritzaren bidetik garapena eta ongizatea bilatzen duten elkarte eta komunitateekin.

KEDko ekialdeko meatzaritza artisau-erara egiten da, eta mineralak arrisku handiko baldintzetan erauzten dira. EZ dute inolako lan-babesik, tuneletara eta galerietara jaisten dira, horiek behera etortzeko arriskua handia izan arren

Ez dago bermatzerik, halaber, horietan umeek lanik egiten ez dutenik. Meategietako batzuk, gainera, talde armatuek kontrolatzen dituztenez, lortzen diren etekinak ez dira iristen bertako herritarrengana; alderantziz, gatazka finantzatzeko erabiltzen dituzte talde armatuek. Ez dugu ahaztu behar, gatazka honek dagoeneko 5 milioi hildako, lekualdatutako populazio ugari eta sexu-indarkeri tasa izugarria eragin duela.

Minerala zuzenean erauzten duten pertsonen gain, meategi inguruan lan egiten duten beste pertsona asko daude, hala nola zamaketariak edo minerala erauzten duten pertsonen zerbitzua ematen dietenak. Zamaketari eta mineral-erauzle gehienak gizonezkoak badira ere, esan behar da badirela emakumezkoak ere, batik bat minerala erauzten dutenei zerbitzua emateko lanetan; bai zamaketari gisa, bai meatez inguruetan elikagaiak salduz. Nabarmetzen den beste alderdi bat meategi inguruetan dauden prostituzio-indizeak altuak direla.

Azkenik, aipatu behar da haurrek eskola uzten dutela meategian lan egiteko. Ez dugu ahaztu behar meategi horietako asko gatazkaren eraginez lekualdatutako pertsonak bizi diren eremuen inguruan daudela, eta, askotan, lan hori denez familia horien diru-iturri bakarra, haurrek meategian lan egiten hasten dira familiari laguntzeko.

HOBKUNTZAK LORTU NAHIAN:

Egoera hori dela eta, meatzaritza-gune batzuetan, meatzari artisauen kooperatibetan antolatzen ari da populazioa, laneko segurtasun-baldintzak hobetzen saiatzeko (esate baterako, ez zaie sartzen uzten emakume haurdunei edo adingabeei). Era berean, herrialdeko lege berriaren helburua, baldintza txar horiei amaiera ematea da. Halaber, herrialdearen ekialdeko meategi batzuk kontrolatzen dituzten talde armatuen abusuarekin⁴ amaitzea.

Meatzari artisauen talde horiek **eskaera** argi bat helarazten digute: meategietan lan egiten duten pertsona guztiak laneko baldintzak hobetzea. Kongon lan egiten duten erakundeen ustez (**ALBOAN** haiekin ari da lankidetzan), mekanismoak ezarri behar dira artisau-meatzaritza diru-iturri eta garapen-eragile izan dadin eskualdean, baina, aldi berean, lortu behar da meatzaritzatik lortzen diren etekinek meategiak dauden eskualdeko pertsonen eta komunitateen onura ekartzea. Hala bada, segurtasun-neurriak eskatzen dituzte, talde armatuek ez dezaten lortu erauzitako mineralaren kontrola, ez eta horien ondoriozko interesik ere. Bestetik, eskatzen da meategiek aurrerapenak egin ditzatela laneko segurtasunari dagokionez, eta galarazita egon daitezela lan behartua, haurren lana eta emakume haurdunak meategian lan egitea.

Laburbilduz, eskatzen dute meatzaritza segurua izatea, komunitateen onura ekartzea eta ez dezala elikatu Bigarren Mundu Gerraren ondoren hildako gehien eragin duen gatazka.

¹ 2012an argitaratutako ikerketa: *Norena da Natura?* http://centroderecursos.alboan.org/ebooks/0000/0840/ALB_INV_15_eu.pdf

² *United Nations Environment Program- UNEP, 2009. From Conflict to Peacebuilding: the Role of Natural Resources and the Environment.*

³ <http://gaurkoemakumeak.wordpress.com/2014/06/04/mujeres-en-resistencia-no-violenta-en-la-puya-guatemala/>

⁴ Ikus IPISen mapa interaktiboa: <http://ipisresearch.be/mapping/webmapping/#>

ARIKETA-PROPOSAMENA

MEATZARITZA-MUSEOETARAKO BISITA

Garapena: GGT kanpaina (Gatazkarik Gabeko Teknologia), globala dena eta lokala dena lotzen saiatzen gara beti. Badakizue meatzaritza-tradizio handia dagoela gure lurraldean.

- Zeven buruari galdetu al diozue inoiz zer baldintzatan lan egiten zuten pertsona haiek?
- Nolako bizimodua zuten meategietan gizonezko eta emakumezko haiek?
- Zenbat ordu lan egiten zuten?
- Zer soldata jasotzen zuten?
- Nola antolatzen ziren beren eskubideak eskatzeko?
- Nork ateratzen zion etekina meategitik erazten zenari?

Egin ezazue irteera bat zuen inguruko meatzaritza-museoren batera; helburua da gure inguruko meatzariak eta KEDko ekialdeko meategietakoek zer ezaugarri komun eta zer alde dituzten ikustea.



EAEn, meatzaritza-museo hauek daude:

- ⇒ Añanakoa Araban
- ⇒ Gallartakoa Bizkaian
- ⇒ Arditurrikkoa Gipuzkoan

Ezin bada irteerarik egin, horiei buruzko ikerketa bat egin daiteke.

INFORMAZIO GEHIAGO ESKURATZEKO BITARTEKOAK

- Kanpainaren webgunea www.gatazkarikgabekoteknologia.org
- “Las minas del rey Leopoldo” liburuaren aurkezpena bideoa: https://www.youtube.com/watch?v=57QXUHQ_oxA
- Ikus ALBOANen “Lekualdatutako Emakumeak Kongon” bideoa: <https://www.youtube.com/watch?v=wWZ6bW1EdY0>
- Norena da Natura? dokumentua: http://centroderecursos.alboan.org/ebooks/0000/0840/ALB_INV_15_eu.pdf
- “El legado de la Drummond en Colombia” bideoa: https://www.youtube.com/watch?v=_aQ80BvQQY8
- REDES kanpaina: <http://www.africacuestiondevida.org/>
- Gatazka ekologikoen mapa: <http://ejatlas.org/>
- Nazio Batuen “From Conflict to Peacebuilding” dokumentua: http://www.unep.org/pdf/pcdmb_policy_01.pdf



ALBOAN

Jesuitek bultzatutako Fundazioa
www.alboan.org

-en proiektu bat



lortzeagatik

www.gatazkarikgabekoteknologia.org